# Denbora-







## 1 Ordenean jarri

Silabekin jolas egitea atsegin al duzu? Marrazkiei begiratu, eta hitzak osatu ahal izateko silabak ordenatu beharko dituzu. Ea lortzen duzun!

## 2 Esaldiak osatu

Idazlana amaitzear zuela hainbat hitz ezabatu zaizkio Lierniri. Hitzen ordez marrazkiak ipini ditu orain. Irudi bakoitzari dagokion hitza ipini esaldiak osatzeko!



## 3 Kopiatu laukiz lauki

Bizikleta berria oparitu diote Mikeli, eta pozez txoratzen dago. Hemen dago bizikletaren marrazkia. Saiatuko al zara alboko laukian bizikleta kopiatzen?

# -pasak

## 4 Osatu hitzak

Inguratzen zaion guztia liluratzen du Rabino aztiak bere txirularekin, baita hizkiak ere. Sasitik ateratzen diren hizkiekin hitzak osatzea izango da zure lana.

| A | T | S | N | E | K | O | U | L |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|






## 5 Munduari bira

Uda ailegatu zaigu, eta oporrak prestatzen dabil gure bidaiari maiteena. Ea asmatzen duzun Europako zein hiru hiriburu bisitatzeko asmoa duen.



Erantzunak: **1.-** Sua, erraketa eta koadroa. **2.-** Tronpeta, ogitarteko eta gaztelua. **3.-** Londres, Brusela eta Atenas.

## jolasa



# Buru gaineko garraioa

Afrikako herrialde askotan buru gainean eramaten dituzte objektuak. Urez betetako pitxarrak, esaterako. Izango al zinateke gai? Liburuekin egingo dugu froga!

**1.** Bi lagun edo gehiago bildu, eta jolas honetarako pare bat liburu beharko ditugu. Ez daitezela oso handiak izan.

**2.** Jolaskideak gela edo korridore bateko mutur batean kokatuko dira lehenik. Komeni da bidean oztoporik ez izatea. Liburuak aldamenean behar ditugu.

**3.** Lehengo jokalariak liburu bat hartu eta buru gainean jarriko du. Eskuen laguntzarik gabe gela mutur batetik bestera zeharkatu eta hasierako lekura itzuli beharko du. Liburua jausi gabe, noski!

**4.** Lortzen badu, bi liburu jarriko ditu buru gainean. Eta bide bera egin beharko du. Behin eta berriz errepikatuko du bidea, bere liburuak erori arte. Liburu gehien eramaten dituena izango da garaileа!